

Inma Errea, kazetari bat itzulpengintzan (eta kontu gehiagotan)

— — — — —
AINGERU EPALTZA

Gutierrez hiru aldiz gurutzatu dira elkarrizketa honen egilearen bideak Inma Errearenekin (Iruñea, 1960). Lehen-lehenik, Nafarroako Unibertsitatean, gelakide baitzuen Kazetaritza Fakultatean. Bigarren, Euskal Telebistan, biak ala biak kaleko berriemaile. Eta hirugarren, itzulpengintzan, bakoitza erakunde desberdin nahiz hurbil batean izanik ere. Zer egiten duen kazetari batek lanbide honetan? Bada, hain arraroa ez luke behar itzulpengintza «komunikazio mota bat» dela uste duen batengan. Orain, ez kazetari ez itzultzaile baina beti komunikatzaile, Inma Errea Euskara Zerbitzuko buru dabil Iruñeko Udalean. Borrokan, beti, sintaxi eta hiztegi arrotzak baino etsai latzagoekin, oraingoan.



AINGERU EPALTZA: Iruñean sortua zara, baina erroak Zilbetin dituzu, Erroibarren, muga-mugako herri batean.

INMA ERREA: Zilbetin, eta Mezkitzen ere bai. Aita Mezkitzkoa zen, baina Zilbetira joan ziren haren aita hil ondotik, han zeukaten familiarik gabeko izeba batenera. Tokatu zitzaion gerra Francorekin egitea; 3 urte eman zituen soldaduskan, zorionez ez zuen tirorik egin, militar baten zerbitzari ibili ze-

lako. Bitarte horretan ama hil zitzaion, eta Ameriketara joan zen.

AINGERU: Emigrazioa ezagututako familiko zara, beraz.

INMA: Garai haietan Zilbeti erdia joan zen Amerikara. Ni harritzen naiz gaurko jende batzuei entzuten diedanean emigrazioaren kontra hitz egiten, hemen hori besterik ez baitugu ezagutu. Aitak egin zituen lehenengo 9 urte Idahon, artzain, bakar-bakarrik

mendian. Gero, Zilbetira bueltatuta, ama ezagutu eta ezkondu ziren. Aita ama baino 15 urte zaharragoa zen. Amerikara itzuli zenean, ama haurdun zegoen. Aita Los Angelesko hiltegi batean lanean ari zela sortu nintzen ni, Iruñean, San Francisco Javier klinikan, dirudunak bezala, aitak Amerikatik bidaltzen zuen diruari esker. 1960ko azaroa zen, baina, kristoren elurtea bota zuenez, otsailera arte ez ginen herrira joan. Urtebetez bizi izan ginen bordan, mendian; han amaren *apitxi* (aitona) bizi zen oraindik, kasik gaztelaniaz ez zekiena. Amorru handia ematen omen zion bere bilobei erdaraz entzuteak. Aita itzuli eta fabrikan hasita, familia Iruñera etorri zen, baina ni apitxi-amitxirekin gelditu nintzen Zilbetin, eta gero ahizpa ere bai. Gero, ni itzuli, eta anaia joan, eta buelta. Itxuraz, orduan oso normalak ziren halako gauzak. 8-9 urte bete arte ez nintzen Iruñean finkatu.

AINGERU: Zuk eta biok Nafarroako Unibertsitatean ezagutu genuen elkar, Kazetaritzako lehen mailan, duela... urte aunitz, erran dezagun.

INMA: Jakina, aunitz, zuk 17 urte zenituen eta nik oraindik 16.

AINGERU: Eta zergatik Kazetaritza?

INMA: Niri asko gustatzen zitzaidan irakurtzea, eta idazteko gogoak bultzatu ninduen batez ere halako ikasketetara. Hizkuntzetarako zaletasuna ere banuen, gaztelania, euskara... Frantsesa hurbil genuen herrian, eta ingelesa Ameriketara ibilitakoei ekartzen zuten. Hori guztia ere Kazetaritzarekin lotzen nuen. Psikologia egiteko aukeraz pen-

tsatu nuen, Pedagogia ere bai. Azkenean, horiek hainbat arrazoiengatik baztertu eta Kazetaritza hautatu nuen.

AINGERU: Orduan ez genuen euskaraz egiten gure artean. Hori gero etorri zen.

INMA: Euskara ez zidaten etxean irakatsi. Entzuten nuen, apitxik eta amitxik beti euskaraz egiten zutelako beren artean, batzuetan niri informazioa ezkutatzeko, nik uste. Apitxik eta nire osabek lagun handiak zituzten Xalbador bertsolaria eta haren seme Mixel, hil berri dena. Artzainak ziren guztiak, eta mendian elkartzen ziren. Xalbador bazen norbait etxean; bertsozale amorratuak ziren etxean, eta, alfabetatuak ez izan arren, zain egoten ziren *Príncipe de Vianaren* euskal gehigarria herrira noiz etorriko, hura irakurtzeko. Ama, berriz, nahiz eta ulertu, ez zen mintzatzeko gai, eta are gutxiago izeba, gazteagoa baitzen. Eskualde horretan emakumeek lehenago galdu zuten euskara. Gizonen artean, Ameriketara joaten zirenek hobeki mantentzen zuten, aitari gertatu zitzaion bezala. Hala ere, guri ez zigun euskaraz egiten. Haren azken urteetan hasi nintzen harekin euskaraz. Egia esan, hil aurreko hilabeteetan erizain guztiei egiten zien euskaraz, behin halako batek berari egin zionetik.

AINGERU: Orduan, noiz hasi zinen euskara ikasten?

INMA: Zilbetiko erdara euskarak erabat kutsatua zegoen orduan, bai hiztegiaren aldetik, bai egituren aldetik, eta nik Zilbetiko erdaraz egiten nuen. Baina ikasi, benetan ikasi, karrera bitartean ikasi nuen. Lehe-

nengo maila Nafarroako Unibertsitatean bertan, norekin eta itzultzaile batekin, Jose Basterretxea *Oskilasorekin*. Gero, Arturo Kanpion euskaltegira joan nintzen, eta han egon nintzen karrera bukatu arte. Urte berean atera nituen Euskaltzaindiaren titulua eta Hizkuntza Eskolarena. Orduan hasiko ginen bion artean euskaraz.

AINGERU: Eta Euskal Telebista hasiberrian egin genuen berriz ere topo elkarrekin.

INMA: Zu lehenago sartu zinen ni baino. Egia esan, niri irratia gustatzen zitzaidan gehiago. Hain zuzen ere, Euskadi Irratirako oposizio baten erdian nintzen telebistako plaza atera nuenean. Ez nuen segitu. ETB-rekin hiru urte egin nituen Iurretan, eta, gero, eszedentzia baten ondoren, Iruñean, korrespontsal.

AINGERU: Zer oroitzapen dituzu denbora horietatik?

INMA: Gazi-gozaok. Durangora jende mordoa joan ginen hainbat tokitatik bizitzera, gazteak denak, gogo handiarekin, eta hori nabaritzen zen. Baina ETBren egitura ere hor zegoen. Guk, albistegietan, agintzen zigutena egiten genuen. Euskararen aldetik, bestalde, nik atsekabe handia hartu nuen ETB2 sortu zenean, 1986an; langileok protestaka atera ginen, eta asanblada izugarri bat egin genuen. Kontua baretu nahian-edo, azaldu ziguten ETB2k aurrekontuaren zati txiki bat baizik ez zuela hartuko, eta ETB1ek gehiena izanen zuela. Pentsa nola joan diren gauzak! Gero, politikak asko kutsatzen zuen dena. Garaikoetxearen eta Arzalluzen arteko borrokaren urteak izan ziren, eta

nik, kutsatu gabea bainintzen, haluzinatzen nuen ikusten nituen gauzekin. Dena nahasia zegoen.

AINGERU: Eta gero, errana duzu, Nafarroara ETBren korrespontsal. Nafarroako orduko giroan, batetik, eta Euskal Telebistakoan, bertzetik!

INMA: Hasteko, bitartekorik gabe etorri nintzen. Korrespontsalia antolatu behar zen lehenik, harremanak egin... Hasieran ez nuen editatzeko mahairik ere; irudiak grabatu bezala bidaltzen nituen, eta haiekin batera gidoi moduko bat, gutxi gorabehera fundamentuz edita zitzaten Iurretan. Gero, tresneria etorri zen, baina bideoak bi ordu lehenago bidali behar izaten ziren, motoz edo taxiz. Eta bestelako kontuak. Zer informazio mota nahi zuten Nafarroatik? Bada, lorategi batean norbaitek ipotxak jarriak zituela, eta halakoak. Aldiz, [Nafarroako Gobernuak lehendakari] Urralbururen eskandalua lehertu zen egunean, eguerdiko editore Jose María Callejak aginduta, EAEn bai baina Nafarroan batera eraginik izan ez zuen ekaitz edo dena delako baten gaineko informazioa eman behar izan nuen. Bizkaian ez dakit, baina Iruñean sekulako eguraldi ederra zegoen egun horretan. Aldiz, Urralbururen kontua ez zitzaion emateko modukoa iruditu. Nire kabuz joan nintzen haren prentsaurrekora, eta eskerrak, zeren, arratsaldeko editoreak, Bingen Zupiriak, harri eta zur deitu baitzidan ea eguerdiko albistegian nolatan ez genuen deus eman Urralburu auziaz. Dena grabatua nuenez, arratsaldean zerbait moldatu ahal izan nuen eta nola edo hala kontua salbatu. Egun ho-

rretakoa ikaragarria izan zen, baina halakoak dexente bizi izan nituen.

AIINGERU: Eta, halako batean, kazetaritza eta telebista utzi, eta Administrazioa egin zenuen jauzi, zer eta itzultzaile. Zer izan zen, jauzi naturala ala ihesa, amodioa ala interesa, erran nahi baita, kazetaritzaren eromenetik urrundu beharrak bulkatu zintuen itzulpengintzaren abaro goxora?

INMA: Egia da, halako arbuio bat sentitzen hasia nintzen kazetaritzaren aldera. Ez bakarrik eromen orokor horrengatik. Albiste gogorak ematea ere tokatu zitzaidan, eta horrek ukitua uzten zaitu.

AIINGERU: Bai gogorak. Berrikitan ikusi zaitugu berriz ere Euskal Telebistan, elkarriketa egin baitzizuten Oiz mendiko hegazkin istripuaren 40. urteurrena dela eta. Horren berriemailea izatea egokitu zitzaizun, gazte-gazte. Esperientzia ikaragarria izanen zen zuretak; hilotz zatikatuak, hegazkin puskak nonahi...

INMA: Horixe, ikaragarria! Hori Iruñera etorri baino lehen izan zen. Eta hori dena berriz bizitzea ere... Portzietto, sinesten zaila bada ere, ETBk ez ditu gorde orduko albistegiak. Ez da gelditu garai hartan eman genuenaren testigantzarik; masterrak bai, baina gainerakoa ez. Ez daude artxiboetan. Gero, behin Iruñean nengoela, oso gogorra egin zitzaidan Zaragozan ETAk egin zuen atentatua kubritzea. Izugarria izan zen. Gainera, jadanik baziren seinale batzuk erakusten zutenak nola lerratzen hasia zen kazetaritza amarillismorantz, kate pribatuak agertzen hasiak zirelako eta kate publikoek

haiekin lehiatu nahi zutelako. Hori ere ez zitzaidan gustatzen.

AIINGERU: Hartara, Nafarroan euskarazko itzultzaileen lanpostuak ateratzen hasi zirenean, aurkeztea erabaki zenuen.

INMA: Zaletasuna lehendik nekarren. Telebistan nengoela parte hartu nuen Eusko Ikaskuntzak itzulpengintzari buruz Iruñean hainbat asteburutan antolatu zuen ikastaro batean. Itzultzaile Eskolak ematen zuen, eta hor zeuden «guru» guztiak: Josu Zabaleta, Xabier Mendiguren Bereziartu, Koro Navarro, Aintzane Ibarzabal... Modu inkontzientean egin nuen, besterik gabe interesatzen zitzaidalako, pentsatu gabe zenbait urte geroago hori guztia baliagarria izanen zitzaidala. Banuen, beraz, hasierako ikastaro hori egina, eta, gainera, ETBrendako kazetari ibili bitartean itzultzaile lana egiten genuen neurri handi batean. Beraz, itzulpengintzaren teoriari buruzko liburu batzuk lortu nituen El Parnasillo liburu dendan, eta oposizioak prestatzen hasi nintzen, nahiz eta gero ez zidaten halakorik eskatu.

AIINGERU: Lanpostuak, dena dela, ez zituzten oparitzen. Eskarmentuz dakit hori, ni ere ibili bainintzen oposizio horietan.

INMA: Inondik ere ez. Lehenbiziko oposizioa, Nafarroako Gobernurako, ez nuen gaingitu. [Nafarroako Foru] Parlamenturakoan, berriz, laugarrena gelditu nintzen, hamarren gutxi batzuetara hurrengotik, hiru plaza izanda. Geroxeago sartu nintzen, hala ere, Parlamentuan, hiru horietako batek eszedentzia hartu zuenean. Han asko ikasi nuen, maisu onak baintuen: Jon Alonso

eta Alberto Amorrortu. Gainera, gustatzen zitzaidan hango lan egiteko manera. Urtebetera-edo atera nuen lanpostua Iruñeko Udalean.

AINGERU: Inoiz ez zaizu ofizio zaharraren txirrintarik gelditu? Hala erran liteke, kolaboratzaile izaten segitu baituzu prentsa idatzian nahiz irratietan.

INMA: Ba egia esan behar badizut, ez. Ez dut inoiz sentitu halako txirrintarik. Kolaborazioak beste zerbait dira niretako, batez ere iritziak eta ideiak garatzeko modu bat, eta hizkuntza beste modu batean erabiltzeko aukera, kazetaritzaren eta literaturaren artean dagoen zerbait. Kolaborazioetan garrantzi handia ematen diot hizkuntzaren erabilerari: hitz-jokoak, metaforak, oso ohikoak ez diren edo gutxi erabiltzen diren esamoldeak berreskuratzea, adierazkortasuna, euskara batuaren saskiari zerbait gehiago eranstea... Gainera, zutabeek mugak dituztenez karaktere kopuruaren aldetik, erronka polita izaten da trinkotasuna lantzeko adierazkortasuna galdu gabe. Batxilergoko ikasle frankok «gorrotatzen» omen naute, beren gurasoen esanetan, irakasleek *Argiako* nire zutabeak erabili izan dituztelako selektibitateko trebatzeko, baita, noiz edo noiz, selektibitatean bertan ere.

AINGERU: Euskarazko itzultzaile eta interpretari hasi zinen, beraz, euskarara itzulia izatea beti-beti nahi izan ez duen udal batean. Nola kudeatzen da hori?

INMA: Iruñeko Udalean itzultzaile sartu nintzenean, giroa ez zen hain kontrakoa euskarari dagokionez. Udal gobernuan tri-

partittoa zegoen agintean, hau da, CDN, PSN eta IU, eta ni sartu nintzen urte berean onetsi zen Euskararen Ordenantza, 1997an. Horrek itzulpen kopurua izugarri handitu zuen, eta ez zidaten kontra egin bigarren itzultzaile bat hartzeko eskatu nuenean. Toponimia Batzordea ere eratu zen berehala, kaleen izendegia ele bietan paratzeko. Ni idazkari aritu nintzen bertan, eta asko ikasi nuen. Batzordeak lan ona egin zuen, baina, kide guztiek den-dena adostu ondoren, haien lana burutu gabe gelditu zen arrazoi politikoengatik. Berdintsu gertatu zen udal dokumentu guztiak ele bietan paratzeko egin genuen planarekin. Aldi berean, hizkera administratiboa soildu genuen, ulergarriago bihurtu nahian, eta hizkera ez-sexista landu genuen. Urte horietan! Den-dena CD batean bilduta gelditu zen. 1999an izan zen, eta urte hartan hasi zen legealdi berrian agintariek bazterrean utzi zuten. Garai gogoragoak zetozen [UPNren] udal gobernu berriarekin. Hauteskundeak baino lehen, udal funtzionario batzuen aurpegietan eza gutzen zen hori, haiekin izaten genituen bilaretan.

AINGERU: Lanerako giro itsusia, beraz.

INMA: Dударik gabe. Oso mesfidatiak ziren gurekin. Arduradun batzuei mezu teknikoak bidali, eta erantzunik ez. Adibidez, jakinarazpen sistema euskaratzeko lanetan ere hartu nuen parte. Zoritxarrez, administrazio elektronikoa iritsi zenean, euskara bazter utzi zuten, eta orain arte iraun dute arazoek kontu horretan. Hogeitaz urte joan dira, baina oraindik ari gara berriro afera konpontzen saiatzen, ordenantza betetzeko eta dauden salaketei erantzuteko.

AINGERU: Saltsa politikoez gain, kanpotik sumatzen da bide aldapatsua eta katramilatsua egin duela euskarazko itzulpengintzak Iruñeko Udalean.

INMA: Hala da. Gainera, Udalaren egiturak ez du laguntzen. Alorrek batzuetan taila erreinuak izaten dira, eta halako egoera batean zaila izaten da elebitasuna eta itzulpengintza koordinatzea eta modu bateratsu batean antolatzea. Edonola ere, nik argi izan dut beti tokia egin behar zitzaiola euskarari, eta horretarako helduleku tekniko eta legalei eutsi izan diet hasieratik, eta, zer esanik ez, baita aurreramendu teknologikoei ere. Laburbilduta, beti borroka batean, askotan frustrazioei aurre eginik eta beti helburuetan amore eman gabe. Bestalde, maila personalean ere kontu gogor batzuk egokitu zaizkigu urte hauetan; Miren Iriarte itzulzailearen heriotza, kasurako.

AINGERU: Iruñeko Udalera itzulzaile gehiago etorri dira zure ondotik. Nafarroako Gobernuan ere Itzulpen Atala dago duela 35 urtez geroztik, eta bertan langile andana. Foru Parlamentukoak ere badira, ahanzi gabe bertze udal eta erakunde batzuetan ari direnak. Ez dakit horri guztiari behar den etekina atera zaion.

INMA: Segur aski, ahal beste ez zaio atera, beharbada gure ahuleziaren ondorioz. Nire iritziz, koordinazio falta izan da, eta bada oraindik. Agian nire irudimena handiegia da, baina nago modu bateratuagoan-edo aritu beharko liratekeela erakundeak euskararen, elebitasunaren eta itzulpengintzaren alorretan. Ez naiz lege kontuez ari, baizik eta kontu praktikoez, betiere teknologia la-

gun. Bada kontu bat bereziki deigarri egiten zaidana: udaletako euskara teknikari anitz itzulzaile aritzera daude behartuta. Teknikari izateaz gain, itzulzaile aritu behar. Nago haiek eskertuko luketela erakundee-tako itzulzaileek emandako aurrerapausoak aprobe txatu ahal izatea.

AINGERU: Nolabaiteko anabasa ere nabari da gaur egun ere, anabasa terminologikoa eta bertzelakoa.

INMA: Horri aurre egiteko, garai batean egiten ziren erakundearteko terminologia bilerak, baina hori ere galdu da. Ongi egongo litzateke berreskuratzea, zeren arazoa ez baita bakarrik terminologikoa. Joskeran ere ez gatoz bat, ezta Nafarroako moldeei egin behar zaien tokian ere. Gutxieneko batzuk adostu behar genituzke denen artean, zer bai eta zer ez zehaztuta.

AINGERU: Testu batzuk itzultzen ari zirela, ez zaizu inoiz dudarik sortu zure lanaren zentzuaz? Alegia, ez diozu inoiz zeure buruari galdegin: «Baina nork arraio irakurriko du hau?». Edo, ez nuke hobe, euskararen mesedetan, bertze zerbaitetan ari banintz, adreilu irakurtezin hau itzultzen baino? Niri, bederen, hala gertatu izan zait behin baino gehiagotan.

INMA: Aldizkarian [Nafarroako Aldizkari Ofizialean] argitaratzen diren testuaz ari bazara, galdera egokia da, baina aldi berean beste zerbait galdetzen ahal dugu: Aldizkari-ko testu horiek gabe, noraino egonen litzateke garatua euskararen ahalmena klase orotako gauzak adierazteko? Testu adminis-tratiboek ere ekarpena egin baitiote hizkun-

tzaren arragoari. Egia da, testu korapilatsuak izaten dira maiz, neketsuak batzuetan, baina erronka ekartzen digutenak euskararen adierazkortasunaz den bezainbatean. Joxe Bernardo Jauregik, Iruñean itzultzaile gune bat eratzen ibili zen irakasleak, zioen berak bazekiela itzultzaileetan nork zuen irakurria *Gero* eta nork ez... Hizkuntza dena baita: testu ederrak eta ez hain ederrak, testu konplexuak eta sinpleak, idatzizko testuak eta ahozko adierazmoldeak... Angel Errok behin zutabe bat idatzi zuen *Argian* non puntu bakar bat ere ez baitzuen paratu, euskaraz ere halakorik egin daitekeela frogatu nahian. Bestalde, Iruñeko Udalean, Aldizkari Ofizialerako testuez gain, askotariko testuak itzuli behar izaten dira: errotuluak, oharrak, unitate didaktikoak, erakusketarako testuak, webgune eta sare soziale-takoak, herritarren eskaerak, haiei eman beharreko erantzunak, prentsa oharrak, plan teknikoak, testu ekonomikoak... Denetarik. Horrek galarazten digu zuk esandakoa pentsatzea...

AINGERU: Nolanahi ere, zureta dene ez da izan bandoak eta ordenantzak itzultzea. Bat-batean, saiakera bat argitaratu zenuen: *Literatura eta harrikoa*.

INMA: Hori gustuz egin nuen. Ikuspegi feministatik bururatu zitzaidan emakumeok irakurtzearekin, idazkuntzarekin eta literaturarekin ditugun harremanak eta ikuspegiak aztertzea. Gauza interesgarri anitz ikasi nuen bidean, eta hor dago saiakera. Orain argian beste modu batean egiten nuke, baina hor dago ordukoa.

AINGERU: Ez dira gehiago etorri.

INMA: Ez. Bururatu zaizkit hainbat ideia, baina denborarik ez dut izan, eta airean desegin dira. Kolaborazioekin asebate dut idazteko gosea. Eta azkenotan pentsatzen ari naiz poesiara itzuliko nintzatekeela gus-tura, nerabezaroan eta gaztetan poesiarekin hasi bainintzen...

AINGERU: Literatura ere bihurtu izan duzu, haur literatura bereziki, baita zenbait saiakera ere.

INMA: Dozena bat lan izan ziren, Deno-nartean argialetxerako. Guztiak 2010etik 2013ra bitartean eginak, eta gehienak frantsesetik. Gaur egun harriturik gelditzen naiz urte horietan zenbat lan egin nuen ikusita. *Haserretu zaitezte*, Stéphane Hessellen *Indignez-vous!*en itzulpenak, hiru argitaraldi izan zituen. Eta, beste bat nabarmendu beharko banu, *Filosofia alabari azaldua* izanen litzateke, Roger-Pol Droit-en *La Philosophie expliquée à ma fille*ren itzulpena. Oso-oso polita. Jatorrizko frantses testua zoragarria da eskoletan erabiltzeko. Nik, Filosofiari buruz, Espainiako kulturen irakurri eta ikasi ez dudana irakurri eta ikasi nuen Droit-en lanarekin. Itzulpengintza niretako komunikazio mota bat da, zubi lana egiten baitu hizkuntzen artean eta kulturen artean. Hori zoragarria iruditzen zait.

AINGERU: Itzulpen administratiboa versus itzulpen literarioa, ofizioa eta afizioa? Elkarren etsai, elkarren lagun...?

INMA: Nik uste dut lagun izan daitezkeela, eta komeni dela hala izatea. Eta, gainera, literatura itzultzen aritu den jende anitz administrazioko langile izan da, eta da, saski

batean landutako trebetasunak beste batean paratzen dituen, eta alderantziz. Zenbat literatur lan ez ote zaizkion bide horretatik etorri euskarari, kasik musu-truk. Literatur lanetan ez da kasik kobratzen, edo oso gutxi, eta soldata bat edukitzeak ahalbidetzen du hori. Orain gauzak aldatzen ari dira, baina garai batean ez dakit noraino iritsiko zen euskarara itzultitako literaturaren saldoa itzultzaile «administratiboen» ekarpen hori gabe...

AINGERU: Eta, utzixea zenuela uste genuelarik, hara non, ez hain aspaldi, 2023an, poesia liburu batekin bueltatu zara itzulpen literarioaren plazara. Zein eta Mario Benedetti poeta uruguaitarraren antologia.

INMA: Oso gustura aritu naiz, beti bezala, nahiz korrika eta presaka, denboraren kontra. Ofizioa eta afizioa uztartzea beti izaten da zaila... Oso esperientzia ona izan zen; Munduko Poesia Kaietakoek eta Susak lasaitasun handia eman zidaten, batez ere zuzenketa kontuetan. Agian horregatik hasi naiz poesiari begira berriro: itzultzeko edota idazteko. Ez dakit noiz, baina saiatuko naiz.

AINGERU: Duela zenbait urte, Iruñeko Udalean itzulpen lanak utzi zenituen. Euskara Zerbitzuko burua zara geroztik. Horrek ardura gehiago du lan deialdi bat bihurtzea baino.

INMA: Ardura diferentea da. Postua atera zuten lehiaketan, eta ni baizik ez nintzen aurkeztu. Ilusio handiarekin hasten zara, eta gero etortzen dira muturrekoak. Baina nire ohitura izan da beti dena aprobeztatzea, eta

itzultzaile aritutako urteek eman dizkirate hainbat baliabide postuari heltzeko. Ene Zerbitzuan itzultzaileak ditudanez, ez zait ahaztu itzulpengintza... Beste ikuspegi batetik, baina hor dago beti.

AINGERU: Garaiak aldatu dira; Udalean, teoriak behintzat, euskararen aldekoak dauka orain agintean. Dena aise izanen da, beraz, zure lanean.

INMA: Garaiak alderago direnik ezin uka, baina horrek ez du nire lana erraz-errazagoa egin. Alde batetik, aspaldidanik pentsatutako ekimenak, urtetan ideien baratzean gelditu direnak, aitzina atera nahian ari naiz orain. Bestetik, Iruñeko Udala erakunde konplexua da, eta gauzak ez dira erraz ateratzen. Herstura politikoak ere ez dira erabat desegin, nahiz esanen nukeen gutxieneko batzuetan ezin zaiola oldartu euskarari lehen bezala. Gero, barne funtzionamenduan, sumatzen duzu badela jendea sator-lanean eta erresistentzia ezkutuan oztupoak jartzeko euskarari.

AINGERU: Jadanik ez duzu erretiroa aski aparte. Zure lanetik zer gustatuko litzaizuke egina ikustea momentu hori etorri baino lehen?

INMA: «Arantza» batzuk aspaldikoak ditut. Kale izendegi elebiduna ofizialdurik ikusi nahiko nuke, 1998an bidean gelditu zenari behingoz buru emateko. Eta jende anitzek ez daki, baina Iruñeko Udalean kaleak ele biz paratzeko azken erabakia 1979an hartu zuen Osoko Bilkurak! Garaia da horri buru emateko. Bestalde, elebitasuna Udalean modu normalizatuan hedatuta ikusi nahi-

ko nuke, herritarren hizkuntza eskubideei men egiteko eta, bide batez, inoiz bete ez den Ordenantza betetzeko. Batzuei ahazten zaie Euskararen Ordenantza udal arau bat dela, ordenantza fiskalen maila berekoa. Gainera, ikusi nahiko nuke euskara modu normalizatuago batean erabiltzen dela, bai Udalean eta bai hirian... Eta horretan lagungarri izanen litzateke lanpostu elebidun gehiago izatea Udalean. Izan ere, 2017-2018an —lehen «Asironaldian»— ezarri ziren hizkuntza eskakizun gehienak bertan behera gelditu ziren 2019an, UPNren itzulerarekin. Tamalez, gorabehera politikoei izugarri baldintzatzen dute dena. Eta, haize politikoa alde duzunean ere, euskararen aferra zaila izaten da. Gauzak aldatzea neketsua da, eta beldurra zaie epailei, funtzionarioei, PSNri... Gauza aunitzetan haiek dutelako azken hitza.

AINGERU: Eta, jubilatuta eta gero, itzulpengintzari edo sormenari loturiko proiekturik bai? Edo bake sandua behingoz?

INMA: Esan bezala, poesia helburu. Itzuli? Idatzi? Ez dakit... Agian biak. Niretako idaztea eta itzultzea errealitate bereko bi alde direlako, elkar elikatu eta elkar aberastuten dutenak. Euskarari dagokionez, uste dut behin euskara batuaren zorua dugula neurri handi batean finkatuta, euskalkien eta tradizio literario zein ahozkoen ekarpenak egin behar dizkiogula: esamolde zaharrak eta berrituak, onomatopeiak... Eta hizkera berriak ere jorratu behar dira: sare soziale-tako hizkerak, gazteei begira, batez ere, eta, horiez gain, publizitatea, komunikatzeko bestelako erak... Itzulpengintzak eta literaturak, biek ematen dute aukera horretan aritzeko. Eta zer esanik ez poesiak.